Otsalla-Febrero
20
Astartia - Martes
Bilbao, 1934

EUZKO-ZALE

ARPIDE-SANEURRIJA
Bilbao'kua... ... 6,00 Irko, Iru lle:
Bilbao'atazkua 7,50 „ „
Idazki-Itunmena 62,00 „ urtez
Atzarrijetakuak 100,00 „ „
Beldayen itunduba

XXII urtia | Idazkolea ta Banakolea: Correo, 17, 1.º | 234 Idazkutxa | 17.810 Urrutizkiña | 6.616 zenbakija

Egunekua

Euzkel-belguntxak

Geure euzko-ele maťian Bilbao'ko Jon deunen eťtxadonan aspaldiko urtiotan urtaro ixan oi-diran belguntza oneik, igazi dan igandian asi ziran, uťengo igandian amaťuteko.

Lenengo eguneko belguntza au, aťatsaldeko sei ta erdijetan asi zan, guk, izpaťingi onetan, okeť uleťtuta-edo, saspi ta erdijetan asiko zala iragaťi gendun baña.

Okeť iragaťte onek, ordu baten okeťa ekaťi eban. Ordu baten okeťak, notin askoren utsa, okeť au bide dala belguntzaratu barik geratu ziran ardi galdu asko ixan ziran-eta.

Okeť egiñak, baña, zuzendu egin biať dira, belguntzako gora-bera ta artu-emon gustijak be, oťetarakoxe dira, ba, bide okeťak-ziať doyazan ardi galdubak, bide zuzenera ekaťteko.

卐 卐 卐

Belgundarijak, irakuťle, eztira Jon, ezta Kepa be, Jaun-Goikua Ber-bera baño.

Jon eta Kepa, Zalo-etxebaťia anayak, irakuťle, Bilbao'n bixi garan euzkeldunoi geure izkuntza garbi-edeťian Goikua'ren itza edatuten Jon deunen eťtxadonara etoťi diran bidaldubak baño eztıra; euren aboz, Goikua'ren berbea gure goguetaratuten etoťi yakuzan euzko-belgundari aguťgaťijak.

Eta Jon deunen txadonara eldu diranaz batera, deika asi yakuz. Gu, baťiz, arein dayarl erantzuten.

"Eťdu pekatarija,
eťdu elexara;
Jaun-Goikua'ren itza
gogoz entzutera."

Auxe ixan da belgundarijak guri egin dauskuben deya. Eta guk erantzun dautseguena, beste au:

"Damuz eta negaťez
gatoz, gu, Zugana.
Josu ¡oi! damu dogu
pekatu egiña."

卐 卐 卐

Kepa belgundarijak, itz neuťtubok bide dirala, Josu'k egiťen dauskun dei samuťian idoro eban asikerako ekiťalditxubaren geya.

Dei egiťen ebana, Josu zala, esan euskun. Deťubak, ostera, gu gintzala, donokirako bidia laga, ta gaiztokirakua-ziať ibiľten asiťa gagozan ardi galdubak.

Josu'k abuan miñi dautsan dei onek, belgundarija, Josu'ren Bijotzera begira imiñi dau, eta guk ezegaz be ase ezin dogun egarijaz oldoztuten.

Josu'ren Bijotz gozuan, ur gaťden-gardena darijola dagon osasun-iťuťija ikusten dau. Obendijen egaťijan, ostera, zoritxaťerako daukagun makuťtasuna.

Eta zoritxaťerako daukogun makuťtasun oťetatik, zutundu egin gura gauz, eta ezegaz be ase ezin dogun egaťija aseko dauskun iťuťira bidian imiñi.

Iťuťi ori, Josu'ren Bijotza da. Eta belgundarijak egiťen dauskun deya, arakoxe da.

"Eťdu pekatarija..."

卐 卐 卐

"¿Nundik gatoz? ¿Nora etoťi gara? ¿Nora guaz?"

Ona emen Jon belgundarijak abotik atarata axiaren eguetan imiñi euskuzan iru iťaun berezi.

Iťaunoik, axiari kendu dagijoguzan, ba, ta bakotxari jaokan erantzuna emon.

—¿Etoťi?—Goikua'ren guramenetik etoťijak gara.

—¿Nora?—Ludira. ¿Norako?—Nonokirako.

Goikua'k, ludija, ezerez utsetik irasi ebanian, auts apuť bat eskubetaratu eban. Autsari, gero, putz-egin eutsan, eta gixona soťtu.

Puťz arek ludiratu eban gixonari, Urtzi 'k, "azi ta ugariťu adi"—esan eutsan, eta ludija gixakiz beteta geratu zan.

Gixonaren soña, Goikua'k, auts apuťian idoro ba-eban be, gogua Bere arnasan idoro eutsan, eta luťerako bakaťik soťtu eban soin ilkoťetik urtetan zanerako, donoki edeťa egin.

Gixonaren gogua, donokirako egiña da, ba. Soña, ostera, luťerako egiña.

Eta soñak, luťerako egiña dalako, luťera begiratuten dau, ta baťuban saťtuta daruan goguari be, luť-zaletasuna emon.

Eta luťerantz makuťtubagaz, donoki edeťetik uťundu egiťen dau, ta gaiztokirako bidian imiñi.

Donokirako soťtu ebazan arima ilkoťak, baña, Jaun-Goikua'k, gaiztokiratuterik eztau gura.

Eta artaldia maťe daben artzain onaren antzian, belgundari bigurtuten da, Bilbao 'ko Jon deunen txadonatik Jon eta Kepa euzko-belgundari zintzuen aboz, guri ardi galdu eťukaťijoi, euren belgundari bijotz maťaliakin, Josu artzain maťe onaren dei samuťok gure bijotzetaratuteko:

"Jesus artzain maťia
datoť gauť didaťez,
ardi galduben biťa
arin ta negaťez."

卐 卐 卐

Belgundarijen deya, Josu artzañaren deya da. Erantzun dagijogun, ba, Josu'ri, Josu geure artzain ona da-ta.

URIBIŤAŘTE'TAŘ IBON.

Claret abea Zorundun

Doipurubak, iľa onen 25'kn., Claret Andoni Mirena abea Zorundun iragaťiko ei -dau. Bere semion pozoťa!

Zeu, be, euzkeldun irakuťle ori, poztu zaťezantzat, gure Aťa aguťgaťijazko bixizpať batzu ipiñiko dautzudaz.

Catalunya'ko Sallent (Barcelona) eťijan jayo zan 1807'g. urteko lotaziľa-24'gn. Gurasuak, eundegi-jaoiak ixanaťen, aberatsak etziran, kistať on eta langile zintzuak bai, baña.

Andoni semia, be, eurek lakoxia zan.

Jaungoikua'k, baťiz, Andoni gastia eungintzarako barik beste egintza gurenaguetarako autetsi eban. 28 urtedun, 1835'gn., jaupaltzea (abadetza) aťtu, ta lelengo urtietan bere eťiko jauparija ixan zan. Andoni jauparijaren goguak, baña, leku zabalaguak biať-ta, ziñestebakuen aťteko belguntzetara juteko erabakija aťtu eban.

Oťetarako, Roma'ra jo ta "Propaganda Fide„'ra auťkeztu zanaťen, lasteť igaťi eban Jaunaren naya ori etzana.

Atzera egin eban, ba, Catalunya'ra 1840 'g. urtian.

Uťengo soťtzi urtietan, Viladrau eťijan asiťa, eťirik-eťi belguntzetan ibili zan Catalunya osuan. Aldi aretan kataluñeraz idatzi eban "Cami Dret" otoi-idaztija ospatsuba da. Lasteť argitaldu eban gazteleraz, be, "Camino Recto" ixenaz. Geruago euzkeraz iraťi zan, baña, erdizka baño ez. Aurten, J. I., osorik argiťalduko dogu.

1848'gaťen urtian Canarias ugaťtietara Jun zan belguntzetan. Uťengo urtian, 1849 'gn., atzera etoťiťa, Miren Bijotz-Semien Lekaidija (Bazkuna) irasi eban Vich'en. Bazkun au Europa, Apirka ta Ameriketa 'ko edozenbat lekutara zabaldu da; eta bazkidien aťtian euzkotať asko gara.

Auťten Miren-Bijoztaťak Txiña'ra, be, eldu dira; eta aratu diran lenengo soťtziren aťtian bizkaťať bat dago, Unduťaga abea.

Miren-Bijoztať-Lekaidija irasiťa uťengo uťtian, 1850'gn., Doipurubak Claret abea Santiago de Cuba'go gongotzain egin eban; eta sei urtetan ango biztanlien onerako egin ebana aťigaťija ixan zan. Gaiztuak il egin gura ixan eben saťitxu; eta Holguin eťijan ikaragaťiro zauriťu eben.

1857'gaťen urtian Madrid'era etoťi biaťa jazo yakon, II Elixabete España'ko bakaldumiak (eťegiñak) bere autoťentzule ixendatu ebalako.

Uťengo amaika urtietan bere idazti ta itxaldijakaz Madrid'en eta España'ko beste leku askotan Jaunaren aintzarako egin ebana aťatutia, be, gatxa litxake.

Euzkadi'ra, be, etoťi zan. 1866'gaťen urtian Zarautz'en, Donostia'n eta Gazteiz'en ixan zan. Donostia'ko Miren-deun txadonan egin ebazan txonitzak ospatsubak ixan ziran. Orduban Claret gongotzañak Donostia'n irasiriko Miren-Alabaen eta Koldobikaťen bazkunak bai-dirabe oindiño.

Bigaťenez 1868'gaťenian etoťi zan, España'ko matxiñadea baño lentxubago, Lekeitio'ra; eta iľabete egin eban berton. Lekeťaťak, aren bixikerea ikusiťa, deuntzat etsi eben; eta Joranez erduten ziran bere txonitxetara. Irala-17'gaťenian Donostia 'ra aldatu zan; eta 30'gn., España'ko matxiñadea zala-ta, France'ra.

Uťengo urtian Roma'ra jun zan; eta Vaticano'ko batzať nagusijan itxaldi sutsuba egin eban Doipurubaren uskoťeztasun-aldez. Ordurako, baťiz, makal eguan-eta, 1870'gn. France'ra etoťi zan.

Fontfroide'n il zan deunen erijotzaz, 1870 -uťiľa-24'gn.

Iľotz deuna, baťiz, 1897'gaťenian Vich 'era ekaťi zan, eta Miren-Bijotz-Semien txadonan dago.

Zabala-Arana'tať Joseba.

Miren-Bijotz-Semia.

Belguntzea euzkeraz

Bilbao'ko Jon deunaren txadonan igazi dan igandian asi ziran euzkerazko belguntzak, atzokua ixan eben euren bigaťen eguna.

Belguntza oneťara, eťduten, Bilbao'n bixi garan euzkeldun gustijak gagoz biaťtuta. Batetik, euzkeraz dakigunok, enparaukuak baño uskuťtza-zaliaguak garala, bein baño saťijago ageťtu ixan dogulako.

Eta bestetik, belguntza oneik, geure -geuria dan euzkera garbi edeťean egiťen diralako.

Belguntza - saťera ordubak, onixek dira:

Goxetan, seirak baño leuren gitxijagotan.

Aťatsaldetan, sei ta erdijetan.

Ordubok, egoki-egokijak diranezkero, egun baten be ezkara geratu biať euzkerazko belguntza oneťara eldu barik.

Bilbao'n bixi garan euzkeldunok, miñagaz bakaťik barik, egiťadakaz be euzkeltzaliak garala erakutsi biať dogu, bestelan, gure euzkeltzaletasuna, guzuťezko euzkeltzaletasuna dala, aurpegira jauťtiko dauskube.

Belgundarijak dei-dagiskube. Euren deya, Urtzi'ren deya da.

Dei au, baťiz, euzkeraz, geure ele maťian egiťen dauskube. Beraz, gu, euzkera-egaťiz gagozan seme eťukaťijok, dei oťei erantzun biaťian aurkitzen gara. Eta erantzun egingo dautsegu, dei dagijanari erantzutia, euzkotaťena da-ta.

INGI BILDEGIA
Papelería del Oria
MORAIZ'TAR JOSEBA MIRENA
Teléfono, 154 TOLOSA

España'ko Erriketa

SOCIALISTAK

ZELETA

Auťeragoko idazkai batean España'ko eťiketa edo politikatzaz itz egiťean ESATEN GENDUN "socialistak" oso mindurik auťkitzen zirala azkeneko auteskundiak ezkoroztik, orduan eraman zuten uste ezbezelako jipoi gaťatzaren eraman-eziñagatik; eta geroztik gauza aundijak egiťeko ziran aťen, ordukotxe tankera mingaťijan auťkitzen dirala dirudi, oraindik.

Bai, "socialista" españaťak asaťe dira gogotik; eta len gertatua eta geroztik gertatzen zayena dute, noski, min. ¡Beren uste ameskoťen auťera eraman-eziñaren miña...! Ori da gustija; eta ostantzekuak "koplak" dira, "Lauaxeta" azkaťak egoki asko saťiťan esan oiduan bezela.

Eta beren ageťkun gustitan, beren eťiketa azalpen danetan langile edo biaťgiñen zuzendari ta laguntzalerik onenentzat bezela itzez (eta ez egiťez) azaldu izan diran aťen, beaťtsubaren aurkaťirik ziťalenak berak dirala esango genduke. Egintzak ala agertzen digutela dirudi beintzat.

Bestelako azalpen lotsagaťi askoren aťtian, eta beren eguneroko "El Socialista" ziťalak beste gauza bat azaldu nai-ba'digu ere, agiriyan dago zeren tajuz jokatu duten Batzať-Guren edo Congreso'an oraňago Udal-baťutien beren gogoko legedi beťijaren edo "abolición de la ley de Términos municipales"-arazoan Ez dute legedi au azteťtu nai izandu, eta bere ezezteak min gaťatsa soťtu-eraso du beren aťtean.

"Txakuť-goseak, ogiya amets" bezela, "socialista" aďek ere beren "opila" baizik ezdute gogoko; eta berenaren aldez, edo beren-aťtekuen ogasunen aldez itxuan leyatuko dira, egintza itxuski onek beren labetik at auťkitzen diran langile ta beaťtsuen eskubide ta ogasunei egin dezayoten okeť edo gaizkintza aundijaren begirapenik gabe.

Egikisun auxe oaťtu oi-degu beti edo geyenetan españať "socialista„'en eťiketa-arazo agirikoetan; eta gauza ori bera oaťtu degu auťerago aiťatu degun arazo gaťantzitsu oťetan ere.

Udal-baťutiyetako beren legedi beťijaren ezezpen auťka su-ta-gaťekin eta jaťaiťu dute. ¿Zergatik ori? Esango degu.

Esango degu... Bai. Eta aiťatutako "Ley de Términos municipales" ori socialisten jauntxukerirako otondutako legedi zikin bat zala jakitia, aski izango dala uste degu dana esanda dagola esateko.

Berena ta ez bestelakoai, ogibide erosoa aukeratzeko tajututako legedia zuten ori "socialistak"; eta orain "agrarioak" beren "kutuna" luťazpiratzea dute min. Eta min duanak, "¡ai...!"

Oťtan ondo egondu dira eskumať-izenekoak, Lerroux eta beriekin batean. Onela (uste danez beintzat) nekazari mota gustitakoak izango dute ogibidea; ez lenago bezela, "socialistak" bakaťik...

Muturetako edeťa aťturik dira, ba, gezuťezko langilezale oyek jauntxukerizko Udal-baťuti-lege ezezte oťekin; eta ondoren datoťkiote beste bat. "Jurados Mixtos„'en beťiztea.

Baña beťizta au biať-beaťeko ta onuraťkoť zayo nolanaiko langileari, gustijak begirapen batez ikusijak eta aťtuak izan ditezen. Baña "socialistak" ez dute oťelakorik nai, ¡langilezale aundijak izan aťen!

Oť ikusten da, ba, garbi, "socialista"-españaťeri etzayola deus ajola langilearen oneraspengatik, berenagatik baizik; eta oťetxengatik orain (¡jakiña!) aizijak keyaren gisa auťez damaizkin beren amoťuzko matxiñada edo eťebuluziño ots oyek guzik.

¡Ez daukatelako, lenago bezela, gobernuko labeko "opilak" beren aťtean banatzerik!

EUZKO-GASTEDIJA

ITZALDI ABERKOYAK EUZKERAZ

Geure elia ta geure Aberria

II

Nor bere izkuntzak bakať-bakaťik ditu nor bere abendaren oldozkun edo pentzamentuak azaltzeko beať diran itz gustiak.

Augaitik, nor bere izkuntza galdu duan eťiak bere gogoa elbaťituta dauka, zatirik beaťena, onena ta bikaňena palta dualako.

Geyago oraindik. Nor bere ama, eliak, au da, nor bere amatxoren altzo bigunean, bere bulaťa artuaz batera ikasitako izkera edo eliak bakať-bakaťik ditu gogoa itxaťtu erasoteko, ta gure gogoaren ari danari dať-dať eragiteko beať diran eresi mueta gustiak.

Entzun ditugu antzokietan edeťki abestutzen zuten abeslari bikaňak, entzun ditugu eleizetan eta batzaťetan edeťki mintzatzen ziran izlari aundienak, baña munduko abotsik edeťenak ez digu iñoiz gure biotzik ikutu, ez digu iñoiz gure gogorik igitu gure amaren abotsak igitu ta biguntzen zigun bezela.

Eta zergaitik au?

Gure amaren abotsak bakať - bakaťik dualako gure gogoaren ate guztiak irekiteko gai dan giltza bakaťa.

Au onela da eta ludia ludi dan aťte onela izango da. Guk egiña ez dalako, gizonak egiña ez dalako. Jaungoikuaren neuťi gabeko jakinduriak egiña baizik.

卐 卐 卐

Geure ama-izkera edo geure ama-eliak geure biotza ikutu ta biguntzeko duan indať aundia orain esango dizutetan gertaera onetan ikusiko dezute.

Ez uste izan ipuña danik, edestia da, neur gastea nintzanean neure eťian jasorikoa.

Nere jayotz-eťian, ni gaste nintzanean, amama zať bat bizi zan.

Oso ona zan, ume danok "amama Manu" esaten giñion.

Bakať-bakaťik bizi zan, seme alaba asko izan zituan aťen, batzuek il, beste batzuek Ameriketara juan zitzaizkiolako.

Beregandik uťien zeukan umea, Madrid 'en ezkonduta bizi zan alaba bat zan.

Alaba onek esaten zion, bakaťik ain itun bizi gabe juan zediľa Madrid'era berakin bizitzen. Beste ondo nai zioten gustiak ere ori bera esaten zioten eta alako batean "Amama Manu" bere jayotz eťiari aguť egin da, ia larogei urtedun juan zan Madrid'era bere alabarengana.

Alaba erdeldunakin ezkondua zan eta ez gizonak eta ez umeak ez zekiten euzkerarik. Baña amama Manu'k alabakin bakaťik bazan ere egiten zuan euzkeraz. Ez baña bere suyakin eta bere iľobatxoakin.

Lau edo bost iľabete zeramazkian gure amama Manu'k Madrid'en, beti itun, beti ixiľik, eta udabeťiko egun batean bere alabak esan zion: —Ama, gauť aťatsaldean juan zaite Jose Antonio'kin soldauen ejertzioak ikustera. Ia pixken bat alaitzen zeran. Ikusiko dezu zenbat soldau, eta nolako gauzak egiten dituzten.

Ala, aťatsalde aťtan, tranbian saťtu ta amama Manu ta bere iľoba juan ziran Carabanchel erantz edo, soldauak ikustera.

Tranbia'tik jatxi ziranean, emen datoť soldau talde bat, eťeskadan jaťi gabe dabiltzanean bezela, danak paťeka ta danak izketan.

Gure amama Manu beltzez jantzita, bere mantal eta buruko zapi beltzakin, ain euzkeldun jatoťen itxuran ikusi zuanean, soldau euzkeldun batek taldetik. —Auť, ama - diadať egin zion.

Eta amama Manu gaxoak, euzkeraz entzun zuanean bere baťuan aťtu zuan astinduaz negaťa begian zuala —Auť seme—erantzun zion, —Nungua aiz ba, gizajo ori? —Ni Urnieta'kua, ama—erantzun eta auťera, bestiakin batera jo zuan soldau euzkaldunak.

Amama Manu, luťari oñak josita ba 'leuskan baño geldiago bertan gelditu zan negaťez.

Eta bere iľobak eťderaz-zer dezu, amama? guazen ba soldauak ikustera, esaten zionean euzkeraz erantzuten zion: —"Ume, guazen etxera, ume, guazen etxera".

Atzera tranbian saťtu eta juan ziran etxera, eta bertara eldu ziranean amama Manu'k bere alabari —Ume, neure eťira juan biať diňat, neure etxera juan nai diňat.

—Baña, ama, ez altzaude, ba, emen ondo? Zer palta dezu ba?

—Ai, ene umetxoa, nik emen ezer palta ez, eta dana palta. Eleizara igandian juaten naizanean euzkerazko sermoya palta, igande aťatsaldietan besperak eta eťosarioa palta, gabaz etxian eťosarioa palta, Eleizara juaten naizanian ere Madrid'eko eleizetan Jaungoikorik dagonik ere nere baťuak ez din igertzen, etxian umiakin ere itzik egin ezin, ni banian neure eťira.

—Baña, ama, orain aťte, bost iľabetian ez dezu ba oťelako gauzarik esan? Zer egin biať dezu ba an, bakaťik? Emen obeto zaude, nik itz egingo dizut euzkeraz.

—Ik, bai, baña, bezte iňoťk ez ordea. Ni ba nian, ume, ni banian. Lasteť il beať diňat eta nere ezuťak Aťitokieta'ko Ama Birgiñaren begiratupean nai dizkiňat, ni nere eťira.

Eta alaxen, saťtu bultzian eta amama Manu atzera bere jayotz eťira etoťi zan. Bere ama-elia entzunaz bere baťuan nabaitu zituan utzuneak betetzera.

Eta bere jayotzeťian il zan Madrid'etik etoťi ta laugaťen iľabetera.

AŘITOKIETA.

Deunen bixitza

Lon deuna, gotzaña

Doibatzak izan dituan deunen aťtean ospatsuenetakoa ta entzute aundienetakoa izan zan deun au. Egin zituan alatz ugari ta aťigaťiak irabazi eutsoen bereziki entzute aundia. Kistaťak zitun gurasoak eta kistaťtasunaren gerizpean azi eben semea txikitandik.

Garai atan Ravena'ko gotzaintzaren ardura eukan gotzaña deun-ustean eukaen danak. Aretzaz entzun zituan onespenak igituta, aren ardurapean egoteko baimena eskatu eutson Lon gazteak gotzañari. Maitekiro artu eban arek bere zaintzapean. Gaztearen egokitasunak ekandu garbiak eta ilzaera begikoak berealaxe irabazi eutsoen biotza gotzañari. Doibatzari aintza bakana erakartzeko laingoa zala-ta, apaiz egin eban gztea eta eleiz-ondasuna kerabiltzeko arloa egotzi eutson.

Aťeta bizian bete eban luzaroan bere eginbeaťa. Bien bitaťtean, baña Katania'ko gotzain Sabin il zan eta Lon autu eben aren ondorengo. Alegiñak egin zituan arlo au bere sorbaldatik aldentzeko; alpeťikakoak izan ziran, ordea, bere alegiñak. Nayaz beste, 770'gaťen aťtean autu eben gotzain.

Bein sorbalda gañera arloa ezaťi eutsoenez gero, zurki ekin eutson bere eginbeaťari. Eleizgizonen oiturak esiratzen alegindu zan. Bera izan oi zan, oťatio, beste guztien eredu. Egiteak eroaten zituan beti auťetik. Beartsuen maitale ta laguntzale izan zan: alargunen eta umezurtzen eusle. Sinestegalduakin izan zituan eztabaidaen sutsutasunak oťa ta ona baťeatu eban bere izena; egin zituan alatzak edatu eutsoen, oťatio, izena geyago.

Katania'n zoratzale altsu bat bizi zan garai atan. Kistaťa izan zan gaztearoan zoratzale au. Gero, baña, gaztetandik artu eban uskurtza azpiratuta, bere zora-lanetara bakaťik jaťi zan. Aundi-nayak eroan eban zeregin onetara. Egin be egite aťigaťi ta entzutetsuak egiten zituan. Erdi -toteldurik egoten ziran ikusleak aren ezkututiko indať-egiteak ikuski. Aťiturik egozan aren inguruťkoak eta jaungoikotzat gurtu be egin eben gizona. Naspil-bide zala-ta, kaisaťak agindu eutson Erakidel bere gelazai negusiari gizon a atxilotzeko ta bere auťera eroateko.

Itxaso-zeať kaisaťarenganaño eroeta, te izugaťiak egiztatu zituan. Edestu ezan egiteok kaisaťari. Alan da gure eriotzara zigortu eban. Iltokira eroan nean, edateko ura eskatu eban eta edateko gertu zan unean berbertan oyu an eban: "Auť kaisaťa?", ta ikuste gure begietatik ezkutatu ta itzali zan. Bere aldiz be egite onen antzekoaz ustegabe iltzalien artetik igesegin eban. Deabruen indaťak aizatu eban.

Egite oneik guztiak entzun zituan Lon deuna uťeratu yakon zoratzaletsuari ta Jaungoikuaren izenean eskatu tson alderatzeko ta izteko bere zorigutziak eta Doibatzaren magalera biraiko. Arek, ordea, ez eutson jaramonik egin. Okeťago dana, baťiz, egun batez Lon deuna jaupa esaten iñarduala, eleizbaťura joan zan Lindora zoratzalea ta oin-ots eta -ots izugaťia atereaz, meza-entzulei -eragiñaz, meza eragotzi nai izan eban. Biziro asaťatu zan Lon deuna zoratzalearen ausardikeri bakana oartu eban eta Jaungoikuari laguntza eskatu ondoren eraso eutson gizon altsuari ta lepa-zartzaretik eldu ta menderatu eban. Gero, ez bereziki biztu eben sutara jaurti eben zoratzalea ta an eťe zan.

Beste zio batez be erakutsi eban lon deunak bere indaťa. Gurtetxe bereziaren eregi eban aintzina Dezi kaisaťak an jaukoak gurkatzeko. Muño baten gañean egiten an gurtetxe au. Bein Lon deuna gurtetxetik oťetara zuzendu zan eta an egiazko jaungoikuari egin eutson otoyaren bitaťtean. Gizaldiak apurtu ta zatika luťeratu zituan. Gero, jainkoaizunak egon ziran ukuru bertan, kistaťen gurutza deuna jartzea lortu eban.

Egite oneikaz guztiakaz alde guztietara zabaldu zan Lon deunaren izena. Orduan kaisaťak be entzun zituan aretzaz ordaintzen. notiñak edesten zituen egite aťigaťiak eta gizon bakan a ezagutu nairik, deitu eban. Bere auťera aurkeztu zanean, kaisaťa ondoratzen zan eta deun bati egokion begiratzen nez eta itzalez artu eban.

Amasei urtez jardun zan Lon deuna gotzaintzak ekarkiozan eginbeaťak zuzen betetzen. Azkenik, 716'gaťen urtean il zan.

A.'TAŘ T.

Katolikoak bai, baño gurea eginda

"El Pontífice romano, cuando habla excátedra, es decir, cuando, cumpliendo su oficio de Pastor y Doctor de todos los cristianos, en virtud de suprema autoridad apostólica, define que la Iglesia universal debe abrazar alguna doctrina determinada referente a la fe o a las costumbres gracias a la sentencia divina que en la persona de Pedro le ha sido prometida, *es verdaderamente infalible*, con aquella infalibilidad de que el divino Redentor ha querido que estuviera provista su Iglesia, siempre que se vea obligada a definir alguna doctrina sobre la fe o sobre las costumbres."

Gustiz saritan ikusten degu sekula katoliko aťtean ikusi beať ez genukian gauza bat.

Eta da: gure Eleiza amaren. Agindu eta esan batzuk sekulako itzal eta begiramenik aundienaz artzea, eta beste batzuk beťiz, artakotzat ere artu nai ezda ibiltzea.

¿Zergaitik au?

¿Ez alda eliza bat eta ber-bera agintzen diguna, esaterako, jai egunetan meza osoa entzuteko baño idazki eta gañetiko irakuťgai txaťak eta Berak galerazita edo kondenatutakoak ere ez irakuťtzeko?

¿Ez alda Eleiza ber-bera lapuťetarik ez egiteko baño biotz eta gorputzez ere garbi -garbiak izateko agintzen diguna?

¿Zergaitik, bada, Agindu baten utz egitea oben egitea dala uste izan eta besteetan erortzea ez?

¿Zergaitik ori?

¿Ez alda Eleiza ber-bera bata eta bestea agintzen diguna?

¿Ez alda Eleiza aginpide berdiña duana bata eta bestea agintzeko?

Nik uste bayetz.

Meza entzuteko egin beať au artzen degun ardurakin artuko bageun idazki eta izpaťingi gure eleiza amak txaťtxat emanik daukanak ez irakuťtzea, gure eťietara ekartzen diran izpaťingi zital geyenak joan beaťko lukete beťiro etoťi diran tokietara.

¡Zein edeťa izango litzakean!

ONALDE.

GETARIA

IDIAKEZ'EN ALDEZ.—Igaro dan aztian U. B. B.'ko lendakari jaunak artu zituen itxas-gudaritzan arkitzen diran gudamutilen aťtean batutako txindi mordozka bat, beren abeťitik uťin arpitu aťen ezdira une batian bere, euren abeťiatzaz aztutzen. Guzitara 57 lauťleko bildu ditue Idiakez'en auziaren emankoťak ordaintzeko, eta adierazte die euren izen-abizenak argitaratzeko gure izpaťingietan. Ofa, baña, zuen gogoa atsegindu, ta orain ondatzeko getariať abeťtzale guzien izenean lesarkada sutsu bat, guda-mutil denoi, auťerantzian ere jaťaitu benetako aberdan Euzkadi'n aldez.

Getari'koak.—De la Hoz'tať Emili, Ibaťtať Silbestre, Uzin'dať J. Domeka, Namio'tať Toma, Aťegi'tať Bediťa, Alkorta 'tať Maren.

Mutriku'koak.—Burgaña'tať Ilari, Lezertu'tať Jon Joseba, Agiťezabalagar'tať Andoni, Basurko'tať Joseba.

Zumaya'koak. — Manterola'tať Piliť, Erkizia'tať Joseba, Agiťezabal'dať Iñaki, Iruretagoyena'tať Juli, Manzisidor'tať Joseba, Amas'tať Pantzeska, Irigoyen'dať Pirmitiba.

Donosti'koak.—Agiťe'tať Andoni, Aranbal'dať Joseba Mirena, Guťutzaga'tať Andoni, Oses'tať Peli, Ibarnegarai'tať Bixente, Indaberda'tať Martin, Landaberea'tať Eleuke.

Ondaťabi'koak. —Etxebeste'tať Imanol, Lasarte'tať Eťoman, Sorozabal'dať Manuela, Aramendi'tať Joseba, Gaztañaspi'tať Augustin, Olaskoaga'tať Gergori, Lagunzu'tať Gilelma, Aseginolaza'tať Koldobika.

Lezo'koak.—Zumeta'tať Joseba.

Itziar'koak.—Loyola'tať Joseba, Gartiaga 'dať Pantzeska.

Orio'kok.—Oztolozaga'tať Andoni, San Sebastian'dať Joseba Mirena, Doñoaurre 'tať Maren.

Gazteiz'koa.—Perez'tať Nakizo.
Ergobia'koa.—Aduriz'tať Bingen.
Bergara'koa.—Egaña'tať Justa.
Soraluze'koa.—Goldobika'tať Karmel.

Zarautz.—Lopetegi'tať Joseba, Alkorta 'tať Jeronima, Pagoaga'tať Damas, Olazola'tať Eťaimun, Aristi'tať Toma, Urnue'tať Anastasi, Solabeťia'tať Eťikarne, Palacios'tať Peli, Etxabe'tať Joseba, Aldapurua'tať Joseba, Alberdi'tať Joseba, Egaña'tať Pantzeska, Gandi'tať Paben, Etxaldi'tať Mikel, Geuna'tať Pantzeska, Aranburu 'tať antzeska, Bedialauneta'tať Jon, Abadea'tať Bingen, Azpilaga'tať Joseba, Jauregi'tať Jon, Aranzamendi'tať Alpontsa, Eizagiťe'tať Sabin, Badiola'tať Koldobika, Txakartegi'tať Sabin, Egiguren'dať Ilari, Maguregi'tať Toma, Meñaka'tať Bingen, Fradua'tať Jon Imanol, Galdarao'tať Lokadi, Gardiazabal'dať Andoni, Zarandona 'tať Pantzeska, Bengoetxea'tať Sakari, Bengoetxea'tať Gal, Muxika'tať Jon, Galdaramendi 'tať Lokadi, Olano'tať Augustin, Elordi 'tať Pantzeska, Zulueta'tať Toma, Uribarri tať Pantzeska, Laka'tať Eusebi, Eskiagaray 'tať Pantzeska, Abaroa'tať Gerarda, Gorostiaga koetxea'tať Joseba, Alastra'tať Nemesio, Bilbao'tať Peli, Bilbao'tať Bernarta, Urkiza txaga'tať Narkis, Ordodon'dať Kepa, Iturriaga bar'tať Jon, Lťandagoitia'tať Bonifacio, Anakabe'tať Todosi, Izunza'tať Josu, Ortuzar'tať Balendin, Auťe'tať Balendin, Urkiza utia'tať Eťapel, Aranburu'tať Joseba, Bolaľaf'tať Estepan, Salsidua'tať Andoni, Korta ta'tať Gaspar, Valencia'tať Pantzeska, Gondra'tať Akentzi, Iťaibi'tať Jon Joseba, Gezuraga'tať Done, Eťazkin'dať Joseba, Otegi'tať Todor, Elortza'tať Toma, Olaizola ta'tať Sekunda, elaustegi'tať Jon, Santtiago'tať Bingen, Anasagasti'tať Arnulbe, Saroldea 'tať Bartoloma, Armendariz'tať Luki.

ABERKOI

TXIKORO (ACHICORIA) BAKE
EUZKELDUN TXAPEL OLA
Boinas Elósegui
TOLOSA